

# Irakurketa soziohistorikoa erlatibozko egitura ez-estandarren jatorriaz eta bilakabideaz

Dorota Krajewska eta Eneko Zuloaga  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Artikulu honetan *zein* ereduko erlatibozko perpausen erabilera eta bilakabidea dugu aztergai, eta indar berezia egiten dugu erlatibozko izenordaina sistematikoki eta argumentuaren kasu-marka edozein izanda ere modu berean markatzen duten egiturak azaltzeko. Egitura ez-estandar hori ez da agertzen testu historiko kanonikoetan, baina XVII.-XIX. mendeen artean ohikoa da testu-genero jakin batzuetan: gutun pribatuetan, administrazio-agiri eta -gutunetan, eta notariotza-agirietan. Bada, soziolinguistika historikoaren ikuspuntu eta hatsarreak baliatuz, behin-behinean okertzat jo litezkeen erlatibozko egituren jatorria eta bilakabidea dugu aztergai: egitura ez-estandarren erabilerak idazle eta idazlari elebidunen hizkuntza-ezagutzarekin lotu behar direla proposatzen dugu eta, are zehatzago, egitura formulaikoen erabilerarekin eta imitazio inperfektuarekin.

GAKO-HITZAK: Sintaxi historikoa · Erlatibozko perpausak · Soziolinguistika historikoa · Testu-generoak.

## A socio-historical perspective on the origin and history of non-standard relatives

In this paper we examine the use of the pronominal *zein* relative construction in Basque and changes it underwent. In particular, we try to explain the development of constructions in which a form of the pronoun is used to relativize all cases. This non-standard construction does not appear in historical canonical texts, but it is common in the 17-19th century texts belonging to the following genres: private letters, administrative letters, administration documents and notarial documents. We analyse the origin of the non-standard construction from the point of view of historical sociolinguistics, and propose that its development was linked, to (a) the knowledge that bilingual writers and scribes had of the writing code and genres, and (b) formulaic language and imperfect imitation which happened between writers. Key words: historical syntax, relative clauses, historical sociolinguistics, text genres.

KEY WORDS: Historical syntax · Relative clauses · Historical sociolinguistics · Text genres.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.116.2021.2>

*Jasotze-data:* 2020-03-11

*Onartze-data:* 2020-04-17

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Lan honetan euskararen sintaxi historikoaren esparruko ikerketa-saioa dakargu; zehazki, gramatika-arau estandar historiko zein garaikideen ikuspuntutik *okertzat* jo beharko litzatekeen erlatibozko egitura baten adibideak ditugu aztergai, eta egitura horren jatorria soziolinguistika historikoaren esparruko ikuspegitik aztertzen dugu. Horretarako, XVI.-XIX. mendeen arteko dokumentazioa baliatu dugu; zehazki, ez literatur testu kanonikoak, ezpada gutuneria pribatuak eta administrazio-testuak. Ezagun da era horretako testuak gutxi direla euskararen corpus historikoan, euskarak berak bizi izan duen egoera soziolinguistiko diglosikoa ez baita historikoki lagungarri izan ez euskara hezkuntza-sistemako hizkuntza-ardatz izan zedin, ez testu administratibo-juridikoak euskaraz idatz zitezen.

Oro har, erlatibozko egiturak egitura sintaktiko konplexuak dira, eta haien erabilerara lotuago egon ohi da goi-mailako erregistro idatziekin (ikus, esaterako, Biber, 1988). Euskaraz, izen aurrekoa da erlatibizazio-estrategia arruntena eta horrek bereizten du, hain zuzen, inguruko hizkuntzetatik. Nolanahi ere den, hizkuntza erromantzeen pareko egiturak ere bereganatu ditu euskarak historikoki, *zein* izenordaina baliatuz eraikitakoak: horiek ditugu, bada, lan honetan aztergai.

*Zein* ereduko erlatibozko egiturak gutxi aztertu dira, eta hizpide hartu dituzten gramatika- eta ikerketa-lanetan (Lafon, 1999 [1966]; de Rijk, 1980; Oyharçabal, 1987, 2003; Euskaltzaindia, 1999) euskal idazle zahar eta klasiko kanonikoen adibideak bildu dira; alegia, menderik mende argitaratutako liburuetakoak edo gramatikako adibideak. Aitzitik, testu kanonikoen edo landuenen esparruetatik kanpo ere aurki daitezke *zein* ereduko erlatibozko egiturak. Lan honetan erakusten dugu, besteak beste, gutuneria pribatuetan ere arrunt askoak izan zirela garai batean; are gehiago, gutun horietan egitura ez-estandarren adibideak aurkitu ditugu, eta horrek bide eman digu aldaketa sintaktikoaren jatorria aztertzeko eta beronen bilakabideaz proposamena egiteko. Soziolinguistika historikoak ematen dituen ikuspegiak baliatuz, aldaera horiek idazleen arteko hartu-emanen bidez eta idazketa-formulen bidez sortu eta hedatu zirela proposatzen dugu lan honetan.

## 2. Soziolinguistika historikoaz bi hitz

Diziplina guztiz berria ez bada ere (begiratu, esate baterako, Weinreich *et al.*, 1968; Romaine, 1982; Gimeno Menéndez, 1983; Tieken-Boon van Ostade, 1987; Milroy, 1992), azken urteotan nabarmen sendotu eta hedatu dira *soziolinguistika historiko* edo *hizkuntzalaritza soziohistoriko* deritzon esparruko lanak. Aztergai berrien agerrerrak eta hizkuntzen historia kanonikoak osatzeko edo beste ikuspegi batetik berreraikitze nahiari jarraituta, aldagai soziala hainbat datu eta egoera linguistiko interpretatzeko ardatz bihurtu da zenbait herrialdetan. Funtsean, lotura koherenteak bilatu eta aurkitu dira aldagai sozialen (generoa, gizarte- eta ikasketamaila, estilo-gaiak...) eta corpus historikoetan lekukotutako datuen artean (Conde

---

1. Lan honek MINECOK finantzaturako «Monumenta Linguae Vasconum (V): cronología y periodización» (kodea: FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzaren «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HMLV-LHC) [IT1344-19] ikerketa-talde kontsolidatuaren babesa izan du.

Silvestre, 2007: 53), hizkuntza-garai eta hiztun-erkidego bakoitza beregainki eta dagokion testuinguruan aztertu behar delako ideiarekin bat (Bergs, 2012: 96). Euskal Herrian ere ikuspegiak ez da ezezaguna: hizkuntzaren historialarien artean oraintsu arte oso zabaldua egon izan ez arren, interesgarriak dira Madariagak (2014) XVII.-XVIII. mendeetako euskal hizkuntzaz eta gizarteaz eginiko ekarpena, Zalbidetik, Jolyk eta Gardnerek (2015) euskararen historia soziala egiteko proposatutako hatsarre teoriko-metodologikoak zein Monteanok (2017, 2019) Nafarroako XV.-XVI. mendeetako egoera soziolinguistikoaz argitaratutako saioak.

Soziolinguistika historikoan azken bi hamarkadotan egindako ekarpen nabarmenen artean hizkuntzen historiari begiratzeko eta historia berori berreraikitze moldeak aipatu behar dira. Oro har, hizkuntzen historia egiteko, testu kanoniko inprimatuak (Elspaß, 2012: 156) baliatu izan dira, eta historia halakoetan oinarrituz egiten denean historia *goitik* egin da. Alabaina, badira bi hamarkada bestelako ikuspegiak ere agertu eta sendotu direnetik: ez testu kanonikoetan baina *ego dokumentu* deitutakoetan oinarritutako ikuspegi eta azterlanak ugaritu dira, eta hizkuntzaren historia *behetik* (hots, gizartearen behe-mailako kideen hizkuntza-erabileraren deskripzioetik) berreraikitze joera indartu da (Elspaß, 2005; Elspaß *et al.*, 2007; Dossena eta Del Lungo Camiciotti, 2012; van der Wal eta Rutten, 2013a, 2013b; Auer *et al.*, 2015, eta abar): «Such a “language history from below” [...] draws on whatever sources are available from the lower ranks of society (such as private letters, diaries, cookbooks) and uses them to establish their role in language change and, also, standardization» (Auer *et al.*, 2015: 7).

Euskararen historiaz denaz bezainbatean, argi dago corpusak dituen murriztapenek (adibidez, *ego dokumentu*en barnean sailkatu ohi diren testu-genero gehienen adibiderik ez izatea) baldintzatzen dutela azterketa soziohistorikoa egiteko aukera; baina, mugak muga, soziolinguistika historikoaren ikuspegiak baliatu direnean emaitza esanguratsuak lortu dira: begiratu Padilla-Moyanok (2015) *Le Dauphin* corpusaz, Zuloagak eta Krajewskak (prentsan) lapurtera klasikoaren hastapenez esandakoak, eta lan honetan bertan *zein* eredu erlatibozko egiturez proposatzen diren interpretazioak.

### 3. Erlatiboak eratzeko estrategiak euskaraz

Euskaraz erlatibozko egiturak eratzeko aukeren artean ezberdintasun aipagarriak daude (de Rijk, 1972; Oyharçabal, 1987, 2003; Krajewska, 2017):

- a) Erlatibozko perpausa txertatua ala aposatua den
- b) Erlatibozko perpausaren kokapena: izen ostekoa vs izen aurrekoa
- c) Erlatibizatutako izenaren tratamendua: isiltzea vs izenordaina erabiltzea
- d) Menderagailua: *-en* vs *bait-* vs biak

Euskaraz, beraz, erlatiboak izen aurrekoak (1), izen ostekoak (2), aposatuak (3) eta *zein* ereduak (4) izan daitezke (1. taula).

- (1) [gizonek erran dukeiten] *hitz alfer guziaz* (Leizarraga, 1571)
- (2) *arbore* [fruktu onik egiten ez tuen guzia] (Leizarraga, 1571)
- (3) *zuhaitz alferra* [fruiturik iasaiten ez tuen] (Axular, 1643)
- (4) *gizon zuhur baten pare* [zeiñek bastitu baiduke bere etxea harriaren gaiñean] (Haraneder, 1740)

### 1. taula. Euskarazko erlatiboetako perpausen ezaugarriak.

| Ezaugarria                      | Mota          |              |          |               |
|---------------------------------|---------------|--------------|----------|---------------|
|                                 | Izen aurrekoa | Izen ostekoa | Aposatua | Zein eredukoa |
| <b>Txertatua</b>                | +             | +            | -        | -             |
| <b>Erlatiboa izenaren ezker</b> | +             | -            | -        | -             |
| <b>Argumentua isiltzea</b>      | +             | +            | +        | -             |
| <b>Menderagailua</b>            | -en           | -en          | -en      | -en & bait-   |

Lehenengo testuez geroztik izen aurreko egitura da arruntena eta hori da, halaber, gaur egun ahozkoan erabiliena. Inguruko hizkuntza erromantzeekin alderatuta, ezberdintasuna agerikoa da; izan ere, azken horietan izen ondoko estrategiak erabiltzen dira izenordain edo partikulekin batera. Esate baterako, (1) adibidearen gaztelaniazko eta frantsesezko baliokideak dira hauek:

(5) *toda palabra ociosa* [que hayan pronunciado]

(6) *toute parole sans fondement* [qu'ils aurent prononcée]

Nolanahi ere, euskaraz ere bada eredu erromantzeko egituren antzekoa erabiltzeko aukerarik: *zeinekin* eraturakoa (4). Ikuspuntu sintaktikotik, *zeinekin* eraturakoa egiturak eta hizkuntza erromantzeetakoak bertsuak dira, bereziki gaztelaniazko (*el cual* edo frantsesezko *lequel* formekin eraturakoa hartzen baditugu gogoan.

Euskaraz, *zein* ereduko egituren erlatibizatutako elementua izenordainaren bidez adierazten da, oro har *zein* erabilia. *Non* eta *noiz* ere erabiltzen dira; horiez gainera, hala nola *nor* eta *zer*, ere ez dira ezezagunak, nahiz eta gehienbat zehar-kasuak erlatibizatzeke erabili ohi diren. *Zein* erlatiboan izenordainak mendeko perpausaren sintaxiak eskatzen duen kasu-marka hartu ohi du. Euskaraz, bestalde, eta hizkuntza erromantzeetan ez bezala, mendeko perpausako aditzari menderagailua ezartzen zaio (izan *-en*, izan *bait-*).

*Zein* erlatiboak ugari agertzen dira Euskara Arkaikoaz (1400-1600) geroztik eta Bigarren Euskara Modernoaren (1896-1968) hasierara bitartean (periodizaziorako, ikus Lakarra, 1997). Aurretik aipaturako lau erlatibo motak (izen aurrekoak, izen ostekoak, aposatuak eta *zein* eredukoak) aztertuta, hemen hizpide dugun eredukoak adibide guztien % 20-30 artean dira, 2. taulak erakusten duen moduan. Dena den, badira egin beharreko zenbait bereizketa, testu-generoa zein den: *zein* erlatiboak maizago agertzen dira euskarara itzultitako lanetan eta katiximetan (gogoan

hartzekoa da gehienetan itzulpen edo egokitzapenak direla), eta eredu erromantzeen eragin nabarmena duten testuetan (ikus Krajewska, 2017: 103-104, 2018). Halere, euskaratik eta euskaraz sortutako testuetan ere aurki daitezke adibideak.

**2. taula. Erlatiboazko egituren maiztasuna XVI.-XIX. mendeetako testuetan (Krajewska, 2020).**

| Mendea | Adibideak | Izen aurrekoak | Izen ostekoak | Aposatuak | Zein erlatiboak |
|--------|-----------|----------------|---------------|-----------|-----------------|
| XVI    | 444       | % 47,5         | % 12,8        | % 6,5     | % 33,1          |
| XVII   | 1.489     | % 58,4         | % 7,9         | % 10,6    | % 23,2          |
| XVIII  | 1.767     | % 58,0         | % 10,5        | % 10,0    | % 21,4          |
| XIX    | 931       | % 76,7         | % 5,7         | % 8,3     | % 9,3           |

Garai historikoko ugaritasuna ugaritasun, XIX. mendean *zein* ereduko erlatiboan gainbehera hasi zen: Bigarren Euskara Modernora hurbildu ahala eta lehenengo urteez gerotik batez ere erregistro formalean eta teknikoan iraun izan du, bai eta hizkuntza erromantzeetatik euskarara ekarritako testuen itzulpenetan ere. XIX. mendearen amaiera aldeko gainbehera hori hizkuntza-kontzientziarekin eta garbizaletasunarekin lot daiteke<sup>2</sup>: dakigula, Azkuek gaitzetsi zuen lehenengoz egitura, *Euskal-Izkindea* (1891: §238) lanean, euskararen *berezko* egitura jatorra izan ez eta hizkuntza erromantzeen kalkotzat jo zuenean. Halaber, «barbarismo» deitu zuen hiztegian (Azkue, 1969 [1905-1906]: s.v. *zein*) eta «Conjunciones de calco alienígena» izendatu zituen *Morfología vasca* lanean (1969 [1923-1925]: § 725), *nor*, *zer* eta *zein* euskara jatorrean galdetzaile besterik ez direla aldarrikatuz. Kritika-ildo beretik, Larramendi kritikatu zuen Azkuek, ezin baitzuen ulertu nolatan hartuak zituen andoaindarrak *zein* ereduko erlatiboak jatorizat. Ipar Euskal Herrian ere gaitzespena bildu izan du historikoki erlatiboan eredu sintaktiko horrek: «nous n'hésitons pas à condamner ce charabia» zioen Lafittek (1991 [1944]: 407), eta Lafonek (1999 [1966]), Lafitterekin bat etorritik, izenordainik gabeko egiturak (*bait*-besterik ez dutenak) erabiltzea gomendatu zuen, *zein* erlatibo «astunak» saihesteko. Ikuspegi gaitzesle hori dela eta, *zein* ereduko egituren deskripzio gramatikal zehatzak urriak dira: salbuespen nabarmenena Oyharçabalen (1987) lana da, non preskriptibismoa baztertzea eta gramatika-deskripzioa lehenestea aldarrikatzen duen.

#### 4. Ikuspegi soziohistorikorantz: euskaraz idaztea XIX. mendea baino lehen

##### 4.1. Alfabetatze-hizkuntza eta elebitasuna

Euskal Herrian, Europako hainbat eremutan legez, alfabetatze-tasak altuagoak izan dira hiri-eremuetan, gizartearen goi-mailetan eta, bereziki, gizonen artean;

<sup>2</sup> *Zein* ereduko erlatiboan pertzepzioaz eta erabileraz aritzean, hau zehaztu zuen Euskaltzaindiak: «Azken mende honetan, bai Hegoaldean, bai eta Iparraldean ere, franko hotz agertu dira idazle gehienak horrelako erlatiboak buruz, eta guti erabili dituzte. Gramatikari anitzek ere arbiatu izan dituzte, baizik eta euskarak bere-berezko erlatiboak dituela, eta ez dela egoki erdal egitura bati horrela ateen zabaltzea. Edozein modutan ere, ez da dudarik euskal literaturan bere tokia egin duela erabide horrek» (Euskaltzaindia, 1999: 220-221).

horrenbestez, tasok txikiagoak izan dira landa-eremuan, gizartearen behe-mailetan eta emakumeen artean.

Hego Euskal Herriaz denaz bezainbatean, Soubeyrouxen (1985) ikerketen arabera, Espainiako alfabetatze-tasa Europako beste herrialde batzuetako tasaren pare egon zen zenbait mendez; baina, XVIII. mendez geroztik (eta, bereziki, XIX. mendeko hezkuntza-sistema finkatu arte) gainbehera pairatu zuen. Alfabetatzeari buruzko erregistro ofizial zaharrenak XIX. mendearen bigarren erdikoak dira: 1877an, Arabako biztanleen % 38 zeuden alfabetaturik; Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, aldiz, % 54 ingurukoa zen tasa (Dávila *et al.*, 1994). Ipar Euskal Herriari gagozkiolarik, Elosegik (2019: 82) ezkontza-zinen dokumentazioa aztertuta lortutako ondorioen arabera, XVIII. mendearen erdialdeko Lapurdin emakumeen % 11 inguru zeuden alfabetaturik, eta gizonen % 33, eremukako gorabeherak gorabehera (eredu orokorrari jarraikiz, tasak altuagoak dira biztanleria-gune populatuenetan).

Lan honetan aztergai ditugun testuen egile asko elebidunak ziren: euskara ez ezik, hizkuntza erromantze bat ere (oro har, gaztelania edota frantsesa) bazekiten, zeinek bere mailan. Egoera horrek, bada, elebitasunaren auzia eta ikergaia azalerazen du.

Hego Euskal Herrian euskara ez zen hezkuntzako hizkuntza-ardatz izan XX. mendera arte, baina Ipar Euskal Herrian *petites écoles* edo *ororen eskola* direlakoak existitu ziren XVII. mendez geroztik (Oyharçabal, 1999; Zuloaga eta Krajewska, prentsan), nahiz eta ez dakigun tokian tokiko biztanleetatik zenbatek izan zezakeen sarbidea horietara. Orogen eskolen xede nagusia fede katolikoa errotzea zen, batez ere katiximaren irakaskuntzaren bidez: bestelako helburuak, hala nola irakurtzen eta idazten ikastea, xede nagusi horren mende zeuden (Chartier *et al.*, 1976; Carter, 2011). Arrunt denez, lehenbizi irakurtzen ikasten zen, eta ondoren idazten; baina, bazen lehenengo pausoa geratuta irakurtzen besterik ikasi ez zuen jenderik, batez ere lanean hasteko eskola utzi behar zutenean (Grosperin, 1984; Chartier, 1997). Orogen eskoletara joanda ikasketa-prozesua burutu zutenek aukera izan bide zuten hizkuntza idatziaz oinarritzko nozioak berenganatzeko, baina ez dirudi testu luze eta konplexuak idazten ikasteko lekuak zirenik.

Lan honetan aztertutako testuen egileei dagokienez, ez euskaraz baina beste hizkuntza batzuetan (latina, gaztelania, frantsesa...) alfabetatu zirela pentsatzea da zentzuzkoena; alegia, ez zutela euskaraz eta euskararen bidez idazten ikasi, euskal idazle zahar eta klasikoekin gertatu ohi denez. Hori dela eta, euskaraz idatzi behar izan zutenean, beste hizkuntza batean ikasitakoa euskarara ekarri behar izan zuten: ezin agerikoa da hori, hainbatetan aipatu denez, grafiaren esparruan eta, bereziki, txistukarienean (Echenique, 2013: 71; Zuloaga, 2020: §4.7.1).

## 4.2. Erliijo- eta literatura-gaiez gaindiko testuez

Mounoleren eta Lakarraren (2018: 358) hitzei jarraikiz, euskararen corpus historikoa txikia, asimetrikoa eta homogeneoa da. Hori, hain zuzen, euskarak bizitako egoera diglosikoaren ondorioa da: tradizioz, gizarte-geruza gorenetakoa kideek latinez edo erromantzez (gaztelania, okzitaniera edo frantsesa) idatzi zuten, garaia eta lurraldea zein zen. Euskara ez zen sarriegi erabiltzen eremu *garrantzitsuetan*:

justiziaren eta administrazioaren esparruetan, eta goi-mailako literatur ekoizpenean. Corpus historikoaren mugak direla eta, euskal filologo eta hizkuntzalarien artean ez dira askorik hedatu testu-generoaren eta idazleen profilararen araberrako ikerbideak: hizkuntza-garai edo eremu jakin bateko testuak elkarrekin aztertzea izan da joera orokorra.

Lan hau egiteko XVI. mendetik XIX. mendera bitartean idatzitako testuen corpora baliatu dugu; zehazki, administrazio-agiriak (gutunak eta bestelakoak), notarioen agiriak eta gutun pribatuak erabili ditugu. Kochi eta Oesterreicher (1985) jarraikiz, gutun pribatuak hurbilago daude berehalako hizkuntzatik, erakundeek ekoiztutako dokumentu formalak ez bezala. Bien bitartean leudeke administrazioek sortutako gutunak: badute formaltasuna edo formaltasun-nahia, baina gutunen generoari datzekion ahozketasun-kutsua ere badaric. Gure helburuei dagokienez, aintzat hartu behar da testu horiek guztiek ezaugarri bat partekatzen dutela. Testu kanonikoekin (literarioak, erlijiosoak, askotan inprimatuak) alderatuta, eguneroko bizimoduarekin lotutako xede utilitario nabarmena dute; areago, gure corpora osatzen duten testuen idazle eta idazlariek antzeko *background* soziala dute; hots, gehienetan gizartearen erdi- edo goi-mailako kideak ziren, gizonak gehienbat eta gune populatuenetakoak.

Gutuneriak, oro har, euskarak bizi izandako egoera diglosiko bestela ere ezaguna berresten dute. XV.-XIX. mendeen artean ekoiztutako eta egun ezagun diren euskarazko gutun guztiak batuta 23.000 bat hitzeko corpora daukagu eskueran (Padilla-Moyano, 2015). Horietatik guztietatik 15.000 inguru gutun pribatuei dagozkie, eta erdia baino gehiago, 9.000 bat, *Le Dauphin* itsasontziko gutunei (Lamikiz *et al.*, 2015). Bilduma hori berrogeita hamar eskutitzek osatzen dute, denak 1757an bidaliak Lapurditik Louisburgera (Kanada). Bada, testu horietako asko gizarteko behe-mailetako kideen izenpean bidali zirela eta, Padilla-Moyanok (2015) proposamen ausarta egin zuen: Lapurdiko biztanleen artean (emakumeak barne) alfabetatze-tasa arrunki uste zitekeena baino altuagoa zela; alegia, XVIII. mendeko Lapurdin arruntagoa izan zela, are emakumeen artean eta landa-eremuetan ere, irakurtzen ez ezik idazten ere jakitea.

Padilla-Moyanoren proposamena aztertutik, bestelako ikuspegia ekarri du berriki Elosegik (2019). Lapurdiko elizetako erregistroak eta notarioen agiriak aztertu ondoren, gutun gehienak idazlariek idatzi zituztela ondorioztatu du. Guztira 42 bidaltzaile<sup>3</sup> identifikatu ditu zehatz (47 daude orotara) eta, bere datuen arabera, horietatik 10ek bakarrik (7 gizonak eta 3 emakumeak) zekiten idazten; are zehatzago, gizartearen maila ertainekoak edo goi-mailakoak zirela erakutsi du, baita elebidunak zirela ere: funtsean, itsasontzi-kapitainak, merkatariak, abadeak eta abar. Idazleez gain, idazlari profesionalen esku-hartzea onartua eta aztertua da *Le Dauphin* corpuserako behintzat. Padilla-Moyanok (2015: 59) zioenez, aparteko diru-saria behar edo nahi zuten abade, notario eta eskolako irakasleek idazle-lanak egin zituzten, eta Elosegik (2019) ideia horiek berretsi ditu; esate baterako, *Le*

3. Hona iritsita, ezinbestekoa da gutunaren *bidaltzailea*, *idazlea* eta *idazlaria* bereiztea. Lehenik, *bidaltzailetzat* jotzen dugu gutuna bidali asmo zuena; hots, oro har senide edo lagun bati gutuna igorri nahi dion pertsona. Bigarrenik, *idazletzat* jotzen dugu gutuna bere eskuz idatzi zuen pertsona, izan bidaltzaileak diktatua, izan ereduak eta ideiak bilduta idatzitakoa. Hirugarrenik, *idazlari* izendapena lanbidea aipatzeko darabilgu, era generikoan.



*Dauphin* corpuseko 40. gutunaren idazlaria Jean Darretche izen zen (bidaltzailea David Borotra zen), eskolako irakasle bat, eta 31. gutunaren idazlaria Oier Iratçabal (bidaltzailea Catherine Douat zen), ehulea lanbidez.

Administrazio-agiriei helduta, urriak dira XX. mendea baino lehen. Trebiñok (2001), gutunak barne, 1616-1935 arteko 79 testu bildu zituen: horien artean daude udal-jakinarazpenak, ordenantzak, eskabideak eta bestelakoak. Halaber, aintzat hartu behar da horietako asko hizkuntza erromantzeetatik itzuli zirela, eta hainbat mailatako administrarietako edo langile zibilek sinatu zituztela (alkateak, idazkariak, kontu-hartzaileak eta abar). Egileei buruzko informazio gutxi dagoen arren, dokumentazioko ohiko hizkuntza gaztelania edo frantsesa delarik, ez dirudi aparteko arrazoirik dagoenik pentsatzeko euskaldun elebakarrek administrazioan edo administrazioarentzat idatziz lan egiteko aukera handirik zuketarik<sup>4</sup>.

Legearen esparruko testuei dagokienez, aipatu beharrekoa da Elosegik (2018) egindako aurkikuntza: Lapurdiko artxiboak arakatuta guztira zortzi notarioren euskal testuak aurkitu zituen. Bada, notario horien artean Martin Harismendy izenekoak aparteko aipamena behar du, euskaraz 164 orrialde (11.200 hitz inguru) ekoitzi baitzituen: notario haren ekoizpen osoaren aldean (13.167 orrialde) kopurua txikia bada ere, agerikoa da euskararen corpus historikoa nabarmen aberasten duen aurkikuntza dela.

## 5. Zein ereduko erlatiboak administrazio-testuetan eta gutunetan

Atal honetan egoera soziolinguistiko historikoan euskaraz idatzitako administrazio-testuetan eta gutun pribatuetan izandako eragina aztertuko dugu. Izatez, gutun zaharrenetatik hasita agertzen dira *zein* ereduko erlatiboetako egiturak: Euskara Arkaikoan eta Zaharrean, esate baterako, bi adibide aurkitu ditugu B. Etxauzen gutunean (7), hiru Simancasko espioitza-gutunetan (8) eta bat J. Peruskiren idazki batean (9).

- (7) a. *Batez ere arreposturic eziticit vqvhēn*, [çonez pena baitut]
  - b. Othoi egiten darauçut çure berri hunen eta ayta amenez ezcribaciaz, [çoin baita gauça desiracen dudana]
- (8) a. Jauna emen izatu dena da *legat bat*, [zoina etorri baita elizek erregeri eman behar dioten diruaren erreko-bratzera]
  - b. Jauna: orai puntuan errezebitu dut presentarekin aurkituko duen *karta hori*, [zoina baita ene kusin kapitene Meriteinek bildadua]
  - c. *Egun* [zoin baita igandea] gonbidatu ditut sei ingles berririk neon denean lasterrenik sentitzen duenetarik

---

4. Egoera diglosikoak azaltzen du zergatik ziren gutxi euskarazko administrazio-testuak; baina, halere, azterkizun dago zergatik idatzi ziren euskaraz daudenak euskaraz. Gure ustez, hiru arrazoi nagusi daude: (i) euskara arrazoi pertsonalak tarteko erabiltzen zen (adibidez, elkarren ezagun ziren bi pertsonaren arteko harremanetan); (ii) euskara zubi-hizkuntza gisa erabiltzen zen, adibidez Ipar eta Hego Euskal Herrian kokaturiko udalerrien eta administrazioko langileen artean; (iii) gizarte gehiena elebakarra izanik, tokiko agintari eta administrarietako beharrezkotzat edo lagungarritzat jotzen zuten euskara erabiltzea beren erabakiak ezagutarazteko.



(9) eta halaber gomendacen derauçut *Mariatoa*, [çeina baita ene emastea yçanen ere bai secular]

Guztira *zein* erlatiboan 227 adibide bildu ditugu, 106 testuko corpusa erabilita<sup>5</sup>. 106 testu horietatik 18 administrazio-agiriak dira (16 egilerenak), 13 notariotza-agiriak (3 egilerenak), 32 administrazio-gutunak (17 egilerenak) eta 43 gutun pribatuak. 3. taulak erakusten du adibideen banaketa menderik mende eta generoz genero. Gutun pribatuetako adibide gehienak (65etik 42) *Le Dauphin* corpusekoak dira, non *zein* ereduak perpausak 50 gutunetatik 24tan agertzen baitira.

**3. taula. Aztertutako adibideak menderik mende eta generoz genero**

| Mendea  | Administrazioko dokumentuak | Administrazioko gutunak | Notarioen agiriak | Gutun pribatuak | Guztira |
|---------|-----------------------------|-------------------------|-------------------|-----------------|---------|
| XVI     | 0                           | 0                       | 0                 | 9               | 9       |
| XVII    | 0                           | 33                      | 0                 | 3               | 36      |
| XVIII   | 22                          | 10                      | 37                | 48              | 117     |
| XIX     | 33                          | 27                      | 0                 | 5               | 65      |
| Guztira | 55                          | 70                      | 37                | 65              | 227     |

### 5.1. *Zein* ereduak perpausak: egitura ez-estandarrek

Gure corpuseko *zein* erlatiboak aztertuta, berehala ematen du arreta egituraren aldaera ez-estandarren agerrerak. Izan ere, ez dugu halakorik aurkitu testu kanonikoetan eta, dakigula, oraintsu arte (Krajewska, 2017) ez da halakorik deskribatu euskal gramatikan, ziur asko idazleen nahastetzat edo forma *okertzat* jo izan direlako. Oro har, egitura ez-estandarren ezaugarriak behinena da *zein* izenordainaren forma bat, deklinatzen ez dena, perpaus erlatiboaren markatzailea dela: egitura estandarrean eta *zuzenean* ez bezala, ez-estandarretan *zein* izenordainak ez du hartzen erlatibizatutako argumentuari legokiokeen kasu-marka.

Egitura ez-estandarren aldaera arruntenean inesiboko marka duen izenordaina (gehienetan *zeinetan* mugagabea eta batzuetan *zeinean* mugatu singularra) erabiltzen da edozein argumentu erlatibizatzeke, hala nola absolutibozko subjektua (10), absolutibozko objektua (11) eta ergatiboa (12). Subjektu eta objektuez gain, genitiboaren adibide bi (13) eta instrumentalarena izan daitekeen bat (14) ere aurkitu ditugu gure corpusean.

(10) Iskribatzen dauzkitzut bi lerro hauk zuri *gure osasunaren* markatzeko, [zeinetan hanitz on baita Jainkoari eskerrak] (*Le Dauphin* 45)

(11) *nere osasunaren* markatzeko, [zeinetan ona baitut nere familia guziarekin batian] (*Le Dauphin* 47)

(12) *ógeita sorci buru auns eta ardi*, [senian balio situsten ogeita sorci escutu] (Irungo Udalaren euskal testuak)

5. Egiazki, orotara testu gehiago arakatu ditugu, baina aipatutako egitura sintaktikoaren adibideak dituztenetara mugatu dugu corpusa. Corpusaren xehetasunak eranskinean ematen ditugu.

- (13) Eta, oroçaz *proces verbal* eguinic, iguorriren ducie sarri goure Conseilheura, goure procuradoriaren diligencias, [çoinetan guagnan guc goure vorondatiaz eta intentioniaz advertituco cituztegu] (Etxart)
- (14) Nik Martin Harostegui Laurenentzeneko semeak deklaritzen eta aithortzen dut nola prestatu izan diozatedan *133 / 10 s* Lizarragako aita semeri duela urthe baten inguruan etxeko reparazione nezesariotako [zeiñetan egun izatu bainaiz pagatua eta satisfatua erran den suma hartaz] (Dardanbourre notarioa)

Inesiborik agertzen ez den egitura ez-estandarretan, zenbaitetan *zeinak* erabiltzen da (15), anbiguetatea sortuz absolutibo pluralaren eta ergatibo singularraren artean. Egitura honetan ere izenordainaren forma berak hainbat kasu erlatibizatzeke balio du (absolutiboko subjektua (15) edo inesiboa (16)).

- (15) Egorri dinat bat Lantzekaneturekin, bertzea *hire kusina defuntubarekin*, [zenak etorri baitzen Misesekin Baionarat, gasoa] (*Le Dauphin* 20)
- (16) Ene seme maitea, errezibitu dut *zure letra abenduaren hogoi eta bortzian egina*, [zeinak markatu baitarotzu zure osasuna ona] (*Le Dauphin* 19)

Halaber, *zeina* absolutibo mugatua edo *zein* mugagabea (adibide batean) ere agertzen dira:

- (17) Harismendyganik errezibitu tutzun zolak *Gana Dargainganik* ziren, [zeiña eman baitiozkat 140 libera] (*Le Dauphin* 49)
- (18) ... *Joannis de Giron xarpantera Ahetzekoa*, [zein sinatu baitu enekin batean eta ez baitute sinatu espertek eta ez bartideak, Bastida-Agerrek, deklaraturik eztakitela sinatzen] (Harismendy notarioa)

Egituraren erabilera bereziekin lotuta, Eibarko 1754ko udal-ordenantzetako erlatiboak ere aipa daitezke. Labur azalduta, (19)-(21) adibideen berezitasuna *baita* elementuan datza: lehen begi-kolpean *bait* + *da* bilkuraren emaitza dirudien arren, elementu fosildutzat ere jo liteke; izan ere, perpausean beste aditz bat agertzen da. Esate baterako, (19)-ko *seina baita espada* adibidea hartuta, *espada* 'ez bada' da perpauseko predikatua; beraz, *baitak* bestelako funtzioa izan behar du. Izan liteke testu-ekoizlearen begietara erlatiboazko egitura [*zeina baita* MENDEKO PERPAUSA] izatea, non *zeina baita* erlatiboaren markatzaile den<sup>6</sup>. Adibide batean (21), bakarra izan arren, *baitak* aditz-funtzioa ere badu.

- (19) Jaunac, en resumidas quantas, onec esan gura dabena da ze est[ei]lla izan inor bere atrebiduba da adelantauba elejizera alcateric *personaric* [seina baita espada persona onrauba, ydalgua, aberaza da erraizac daucasana, da guison abonauba da oficio charric estaucana]
- (20) baita ber[e] [gal]du estitian *gueure ama provinciakuan fueruac*, [seina bait[a] [con]beni jacusan gueure libertaderaco da pechupian es egoteco]

6. Lan honetan, era horretako adibideak *zeina* kategoriaren barruan sartu eta aztertu ditugu.

- (21) Baita bere, justicia-jaunac probinciaco erri gustietacuac bialdu daychela *urtebarrico ylian*, [ceina baita ustarrilian], urte gustietacuan, testimonio originala errico contu municipaletacua Gastelaco conseju errialera

Corpusa arakatuta, *erlatibo faltsu* deitu ditugun egiturak ere aurkitu ditugu; halakoetan, egiturek mendeko erlatibozko perpausaren itxura dute, baina ez dute argumenturik modifikatzen, adibide hauetan bezala:

- (22) Markatzen darotazu eztuzula Qanigonekin izatu letrarik, bainan egin gintuben, zeinetan aizpa Nana Miarritzen baitugu neskato Bodrirekin. (*Le Dauphin* 38)
- (23) Ene haur maitea, ezinat faltatu nahi hiri ene berrijak markatu gabe, zenak erraten baitun eztunala aspaldijon gure berririk izatu hanbat gastoago guretzat. (*Le Dauphin* 20)

Administrazio-testuekin alderatuta, proportzioan ugariagoak dira erlatibo ez-estandarren adibideak gutun pribatuetan: aurkitutako adibide guztien % 40 inguru dira era horretakoak (4. taula). Administrazio-testuetan eta notarioen agirietan ez dira hain ugari agertzen, eta administrazioaren esparruko gutunetan bakanak dira adibideak.

#### 4. taula. Zein ereduko erlatibozko egitura-ez estandarrak testu moten arabera.

| Testu mota                  | Adibideak | Ez-estandarrak |
|-----------------------------|-----------|----------------|
| Administrazioko dokumentuak | 55        | % 20           |
| Notarioen agiriak           | 37        | % 18,9         |
| Administrazioko gutunak     | 70        | % 7,1          |
| Gutun pribatuak             | 65        | % 43,1         |

Gutun pribatuetan egitura ez-estandarren egiazko proportzioa are handiagoa izan liteke. *Le Dauphin* corpusean egitura dakarten 24 gutunetatik 6tan bakarrik agertzen da *zein* ereduko egitura kanonikoa, eta guztietan adibide bakarra dago. Adibide gehiago dituzten testuak interesgarriagoak dira egituraren gorabeherak ulertzeko: oro har, idazle edo idazlariak forma bakar bat hautatu zuten, eta nonahi erabili, testuinguru sintaktikoa edozein izanik ere. Esate baterako, *Le Dauphin* corpuseko 49. gutunean 6 aldiz agertzen da *zeina*: horietatik 4tan badirudi egitura *zuzena* dela ((24); erabilera ez-estandarrerako, ikus (17)); aitzitik, adibide guztietan izenordainaren forma bera agertzen denez, pentsa liteke idatzi zuenak ez zuela egiazki egitura estandarra erabili eta *zeina* partikula aldagaitz legez baliatu zuela.

- (24) Bada, nik ere satifatzen zaitut *gurias*, [zeña baitugu haiñitz perfekta Jainkoari esker] (*LeDauphin* 49)

Beste alde batetik, 5. taulak aldaera bakoitzaren agerraldi kopurua biltzen du, erlatibo faltsuak ere jasota. Ikusten denez, *zeinetan* aldaera da gehien errepikatzen

dena: adibide asko *Le Dauphin* corpusekoak dira, baina egitura horren adibideak aurki daitezke Ipar zein Hego Euskal Herriko administrazio-dokumentuetan eta gutunetan.

### 5. taula. Zein ereduko erlatiboen aldaeren maiztasuna.

| Aldaera                               | Adibide kopurua | Testu kopurua |
|---------------------------------------|-----------------|---------------|
| Estandarrak                           | 176             | 88            |
| Ez-estandarrak: <i>zeinetan</i>       | 28              | 22            |
| Ez-estandarrak: <i>zein(a)/zeinak</i> | 15              | 8             |
| Erlatibo faltsuak                     | 8               | 4             |

Egitura ez-estandarren adibideak ez dira asko eta ikuspegi diakronikotik zaila da ondorio larririk erdiestea; nolanahi ere den, adibide zaharrenak XVII. mendekoak dira, eta badirudi ugariago agertzen direla XVIII. mendean, eta arian-arian desagertzen direla XIX.ean. Garai bateko eta besteko corpusaren asimetrikitasunak ere baduke eraginik mendeen arteko gorabehera horretan, baina aintzat hartzekoa da denboran aurrerago, handiagoa ere bazela hizkuntza erromantzeen ezagutza (besteak beste, XIX. mendean ezarritako hezkuntza-sistemen bidez). Gure ustez, aldaera ez-estandarrak garai batean ihartutako eta arrakastarik lotu ez zuten berrikuntzak dira.

### 5.2. Zein ereduko erlatiboak eta formulak

Gure corpusaren azterketak beste datu bat ere azaleratu du: *zein* erlatiboak sarri agertzen dira gutunetako formula edo formula-kutsuko pasarteetan. Wrayk (2005: 9) dioenez, formula «is a sequence, continuous or discontinuous, of words or other elements, which is, or appears to be, prefabricated: that is, stored and retrieved whole from memory at the time of use, rather than being subject to generation or analysis by the language grammar». Wrayk (2005) eta Ruttenek eta van der Walek (2012) eginiko sailkapenaren arabera, bi formula mota dira bereziki esanguratsuak gure corpusa ikertzean: testua osatzen dutenak (adibidez, gutunak hasteko erabiltzen direnak, (25)) eta formula intersubjektiboak (adibidez, elkarri goraintziak ematean edo osasuna opestean erabiltzen direnak, (26)). (25)-ean, adibidez, formula litzateke: «Errezebitu dut zuk eskribatu karta, *zeinetan* [...]» – [...] librea izanik. Erlatiboaren «edukia» ez da formularen parte, baina erlatiboazko perpausa agertzea bai. Beste zenbaitetan, erlatiboaren barruan dagoena ere formula da, (26)-an bezala («osasuna [...] *zeinetan* deziratzen baikinduke zuria hala balitz»).

- (25) a. Rezebitu dut *atzo zuk eskribatu karta*, [zointan erraten baituzu jente paubriak direla zuri eskatzen dutenak gastuak] (Larraineko gutuna)  
 b. *Çure gutun abentuaren emereçu garrenecoa recebitu nuen oguey eta laur garrenean*, [çoyntan escribaçen didaçu yguor deçagun gure erre-guearen comissioniaren copia] (Ros)  
 c. Anaia, erzibitu ditut *bi letra: orai bat eta lehenago bertze bat*, [zeinak atsegin egin baitzaukun zure berrien aditzeak osasunaren partetik] (*Le Dauphin* 29)

(26) a. *Osasun dugu Jangoari esker*, [zeinetan deziratzen baikin duke zuria hala balitz] (*Le Dauphin* 46)

b. *Ene espos maitea ez tut faltatu nai izatu presenteko okasione untan zuri neure osasun onaren berriak aditzeraz eman gabe*, [zein eta desiratzen bainuke zurea ala balitz zure familiarekin batean] (B. Arburu)

Gutunetako formuletan askotan agertzen dira *zein* erlatiboak: administrazio-gutunetako adibideen % 13 agertzen dira formuletan, eta ehunekoak % 28raino igotzen da gutuneria pribatuan. Kasu honetan ere *Le Dauphin* corpusean dira nabarmenago proportzioak, % 39ra iristen baitira formuletako *zein* egiturak. Kontrajarritakoak egitura estandarra eta ez-estandarrak direnean, argiro ikusten da ez-estandarrak errazago edo maizago erabiltzen direla formuletan: egitura ez-estandarren adibideen % 37 agertzen dira formuletan, eta formuletako egitura estandarrak % 14 besterik ez dira. Bestalde, *zeinetan* aldaeraren adibide guztien % 50 inguru formuletakoak dira.

## 6. Eztabaida

Idaztea ez da gizakion berezko jakintza eta nola idatzi jakitea idazteko kodea ezagutzeaz harago dago; besteak beste, idatziarekin lotutako hainbat alderdi ezagutzea eskatzen du (Beaufort eta Iñesta, 2014): ekoitzi nahi den testu-generoa ezagutzea eta hiztunek eraturako diskurtso-komunitatea ezagutzea; alegia, idaztearen testuinguru soziala zein den jakitea eta horren barruan jarduteko lanabesak izatea. Gutun bat idazteko, esate baterako, testu-generoak dituen konbentzioak menderatu behar dira, bai eta hiztun-erkidego jakin batek gutunak idazteko darabiltzan arau eta ohiturak ezagutu ere; zuzena eta egokia bereizi behar da ikuspuntu linguistikotik ez ezik, baita soziolinguistikotik eta pragmatikotik ere: Lillisen (2013: 70) arabera, generoak dira «socially and culturally patterned ways of engaging in activity». Euskal Herriko ingurune soziolinguistiko konplexuan, baina, menderik mende testu-ekoizle aritu direnek ez dute hizkuntza-eredu gramatizaturik eta estandarizaturik izan berandura arte, eta badirudi, goi-mailako erlijio-testuetan gertatzen den legez, arrunta izan dela bestelako testu-genero batzuetan ere unean-unean eskura zituzten ereduak erabiltzea.

Pertsona elebidunek beste hizkuntza batzuetako arauak baliatu izan dituzte historikoki, besterik ezean, unean uneko beharriari aurre egiteko. Esate baterako, idazkari batek administrazio-dokumentu bat euskaraz prestatu behar zuenean, gaztelaniazko zein frantseseko testuak balia zitzakeen eredu gisa: itzulpen-lana egin zezakeen eta, harago joanaz, administrazio-testuei darien estilo eta erregistro formala imita zezakeen. Beste horrenbeste gertatzen da bestelako konbentzioekin ere, hala nola gutunetako formulekin.

Euskarara itzulitako edo euskaraz sortutako beste testu batzuk ere eredu izan zitezkeela ez dugu zalantzarik zenbait lekutako testuen artean dauden kidetasunen argitan. Hori horrela izan dadin, baina, beharrezkoa da euskaraz ere gutxieneko tradizioa egotea eta idazleak beste nonbait ekoitzi edota erabili diren testuen berri izatea. Gutun bat idaztean, idazleak beste gutun batzuetako pasarteak berrerabil zitzakeen; hain zuzen ere, hori da gutunak idazten ikasteko modu arruntena: gutunak

irakurtzea, irakurritakoak entzutea eta ondoren imitatzea (van der Wal & Rutten 2013c). Horrek azal litzake, beraz, nolatan diren hain antzeko leku ezberdinetan eta pertsona ezberdinek idatzitako testuak.

*Zein* erlatiboaren jatorriaz aritzean, hizkuntza-ukipena aipatu izan da eta, are zehatzago, euskarara hizkuntza erromantzeetatik sartutako egituratzat jo da (adibidez, Lafitte, 1991 [1944]; Haase, 1992; Trask, 1998). Aldaketa hala izatera, *goitik beherako hizkuntza-aldaketa* deiturikoa (Labov, 1994) izango litzateke; alegia, irakurle-idazle ikasienek (oro har, gizartearen goi-mailetan kokatuak) idatziaren bidez sartutako egitura berria, beste hizkuntza bateko eredu landua oinarri duena. Ikuspegi soziohistorikotik antzeko proposamenak egin dira, hain zuzen ere, hainbat hizkuntzako erlatibizazio-estrategiez aritzean (Romaine, 1982; Rissanen, 1999; Rutten eta van der Wal, 2014, besteak beste). Hizkuntza erromantzeetako eredu kultuaren imitazioz sartu bide ziren era horretako egiturak euskaraz, baita idazle ikasien esparrutik kanpo ere, hala nola beste hizkuntza batzuetan arrunt askoak diren formula-kutsuko pasarteak euskarara ekartzean.

Aurrekoaren erakusgarri, (27)-(30) adibideetan frantsesez gutunak hasteko XVIII.-XX. mendeetako zenbait formula ikus daitezke, bakoitza erlatibozko egitura batekin. (30)-ean, gainera, lan honetan aztergai ditugun euskarazko egitura ez-estandarren antzeko erabilera agertzen da. Egitura ez da estandarra: *elle* izenordain erresuntiboa ekartzeaz gain, izenordaina ere ez da estandarra (*auquel* preposizioarekin, *laquelle* subjektuaren orde). Branca-Rosoffek (1990) aipatu bezala, erlatibo *okerrak* dira XX. mendearen hasierako soldaduen gutunetan aurki daitezkeen *akats* arruntenetakoak.

- (27) Je répond a ta lettre que nous avons reçu il y a qu'elques jours *dont* nous avons été très contents de voir que vous êtes tous en bonne santé ce que nous pouvons vous en dire de même que nous sommes tous très bien pour le present (Bruneton-Governatori eta Moreux, 2015: 89).
- (28) Je vous aist crist cette Lettre pour vous faire asavoir de mes nousvelle *qui* sontres bonne dieu mersie (Martineau, 2007: 205).
- (29) J'ai reçu hier 20 janvier ta lettre du 17 *dans laquelle* tu me parles du dessus de piano d'Adèle et où se trouve le petit mot de Jeannette (Vicari, 2018: 14).
- (30) J'ai reçu ta longue lettre du 28 *auquel* elle m'a fait grand plaisir (Branca-Rosoff, 1990: 23).

Euskaraz, *zein* erlatiboak biltzen dituzten formulak idazle eta idazlariek ikasi bide zituzten; ziur asko, esperientzia edo ezagutza gutxienekoek, alde zurratik beste hizkuntza batean ekoiztutako elementuak berrerrabiltzeak salatzen duenez (Rutten eta van der Wal, 2012). Imitazioa ez zen beti fidela: askotan, emaitzak hurbilago zeuden ahoz ahoko edo *telefono matxuratuaren* bidezko transmisioetik, txarto-ulertuak eta berrinterpretazioak tarteko, ziur asko hizkuntza erromantzeen (edo, are zehatzago, horien barneko erregistro formalen) ezagutza mugatua zutelako idazleek.

Euskaraz eta erromantzez ez dira erlatibizazio-estrategia berberak erabiltzen. Bada, erromantzea nagusiki ahozkoan eta testuinguru informaletan bakarrik baliatzen

zuten hitzunez arazoak izan zitzaizkien hizkuntza horietako erlatiboak egiturekin, ezohikoagoak baitira ahozko jardunean. Adibide baterako, ingelesari dagokionez, Biberrek (1988) egindako ikerketaren arabera, 1.000 hitzeko, batez beste 2,9 perpaus erlatibo baliatzen dira elkarriketetan, 4,6 prentsako erreportajeetan eta 8,6 dokumentu ofizialetan. Berebat, *zein* erduko erlatiboak perpausen ordainak frantsesezko eta gaztelaniazko ordainak (*lequel* eta *el cual* erabili erabiltzekoak, zehazki) erregistro formalari dagozkie (Guiraud, 1966; Auger, 1995). Egituren adibide *zuzen* edo estandarrek ezagutu eta menderatzen ez zituzten hitzunez ez bide zuten ulertzen, beraz, *zein* zen egitura sintaktiko kanonikoaren osagaien funtzionamendua.

Adibide zehatzagoa ematearren, *zeinetan* inesibodun aldaera ez-estandarra har dezakegu berriz. Badago gutunetan formula bat, non inesiboa erlatibizatzen den euskaraz (31). Horren pareko egiturak aurki daitezke beste hizkuntza batzuetan (27)-(30), eta horiek euskarara ekartzeko biderik errazena *zein* erlatibora jotzea da:

- (31) a. Recebitu dut *çure guthuna*, [çoinetan esribatzen baiterautaçu nola dezir handia duciela guciac baque eta arcordu hun baten eçartera bi herri hoyen artian] (Etxart)
- b. Rezebitu dut *atzo zuk eskribatu karta*, [zointan erraten baituzu jente paubriak direla zuri eskatzen dutenak gastuak] (Larraineko gutuna)
- c. *Çure gutun abentuaren emereçu garrenecoa* recebitu nuen oguey eta laur garrenean, [çoyntan esribaçen didaçu yguor deçagun gure erre-guearen comissioniaren copia] (Ros)

Gure ustez, era horretako formulak izan litezke *zeinetan* erlatibo ez-estandarren jatorria. Idazleek ez bide zuten egituren sintaxia ondo ulertu (alegia, ez zuten izenordainaren eta argumentuaren arteko komunztadura-beharra barneratu) eta izenordain inesiboduna berranalizatu zuten erlatiboak perpausari sarbide ematen dion partikula aldagaitza balitz bezala; ondoren, testuinguru berrietara hedatu zuten.

Berranalisi hori zuzenean gerta zitezkeen, formulako *zeinetan* testuinguru berrietara zabalduta edo *erlatibo faltsu* deitu ditugunen bidez. Adibideen bidez azalduta, (32) motako formulak erlatiboak erreferentzia egiten dio perpaus nagusian aipatzen den gutunari. Bigarren pauso batean laburtu egiten da, *zeinetan idazten didazu X* perpausetik *zeinetan X*-ra igaroaz. Pasarte gutunari nolabaiteko erreferentzia egiten dion perpausaren txertatzen da (33): sintaktikoki erlatiboak perpausak bezala funtzionatu ezin duen arren, semantikoki oso hurbil dago. Hain zuzen ere, era horretako zenbait adibide aurkitu ditugu erabilitako corpusean: *erlatibo faltsuak* dira (22)-(23). Azkenean *zeinetan* izenordainak galdu egiten du esangura lokatiboa, semantikoki esanahirik gabeko perpaus erlatiboaren markatzailerak hurbiltzen da eta edozein testuingurutako edozein izen-sintagmaren modifikatzaile bihurtu daiteke, (34)-an bezala.

- (32) a. Recebitu dut *çure guthuna*, [çoinetan esribatzen baiterautaçu...] (Etxart)
- b. Jaso dut zure gutuna [zeinetan idazten didazu X] – *zeinetan* ‘non’



- (33) a. Markatzen darotazu eztuzula Qanigonekin izatu letrarik, baina egin gintuben, [zeinetan aizpa Nana Miarritzen baitugu neskato Bodrirekin] (*Le Dauphin* 38)  
 b. [... gutun bati buruzko pasarte bat...] [zeinetan X] – *zeinetan* ‘non’
- (34) a. salutatzen zaituzen *aizpa Nanak*, [zeinetan Miarritzen baita neskato] (*Le Dauphin* 15)  
 b. [izen-sintagma bat] [zeinetan X] – *zeinetan* ‘erlatibo-marka’

Izenordain lokatiboak beste hizkuntza batzuetan ere perpaus erlatiboaren marka orokorrak izan daitezke: alemanaren zenbait dialektotan, esaterako, *wo* ‘non’ izenordainak kasu guztiak erlatibiza ditzake (Fleischer, 2004).

Arestian aipatutako azalpenen parekoak proposa daitezke, halabetsu, bestelako aldaera ez-estandar batzuk azaltzeko. Esate baterako, *zeina* duen egitura osasunari lotutako formulekin lot daiteke, non izenordainaren absolutibozko forma agertzen baita:

- (35) *Bada, nik ere satifatzen zaitut guriaz*, [zeña baitugu haiñitz perfekta Jainkoari esker] (*Le Dauphin* 49)
- (36) *ene espos maitea ez tut faltatu nai izatu presenteko okasione untan zuri neure osasun onaren berriak aditzeraz eman gabe*, [zein eta desiratzen bainuke zurea ala balitz zure familiarekin batean] (B. Arburu)

Idaztean erabiltzen diren esapideak ere garrantzitsuak dira beste hizkuntza batzuetan erlatibozko egiturak sortzeko; adibidez, ingeleseko *wh-* erlatiboaren sorrerarako (Romaine, 1982; Rissanen, 1999; Bergs, 2005). Bergsek (2005: 50) dioenez, *who*, *whom* eta *whose* lakoak «do not simply enter the linguistic system as grammatical elements in one big swoop, but which originate as part and parcel of complex formulaic expressions which are then slowly (des-)integrated into the grammar». *Zein* erlatibo ez-estandarrek ere esapideei loturik sortu ziren, baina gerora emankor bihurtu ziren perpaus erlatiboaren marka arrunt gisa, formuletatik kanpo ere era horretako egiturak dauden frogagarri. 5.2. atalean esan dugu *zein* erlatibo ez-estandarrek maizago agertzen direla formuletan estandarrek baino. Horren azalpena litzateke *zein* erlatibo ez-estandarrek formulei lotuta sortzen direla, eta idazleek batez ere formuletan erabiltzen dituztela; halere, gure corpusean bestelako testuinguruetara zabaltzearen zantzuak ere badaude. Aldaera estandarra erabiltzen duten idazleek, aldiz, libreago erabiltzen dute, hobeto menderatzen baitute sintaxia.

Aurrekoen landara, bestelako galderak ere egin daitezke: zergatik baliatu zuten idazle eta idazlariek hainbestetan *zein* ereduko erlatiboa? Gure ustez, egitura sintaktiko hori, ahozko jardunean arrunt ez zela, hizkuntza idatziari lotutako ezaugarri bihurtu zen. Gutun pribatuak ahozko diskurtsoetik hur egon ohi dira, baina erregistro formalagoetako osagaiak ere izaten dituzte, eta hiztunek, idazleek eta idazlariek konbentzio idatziez duten kontzientzia islatzen dute (Martineau, 2013; van der Wal eta Rutten, 2016). Ahozkoaren eta idatziaren arteko hibridotasuna erakusten dute, beraz, gutunek, Martineauk (2013: 134) *hibridotasun* kontzeptuaz ematen duen ikuspegiarekin bat:

Hybridity is inherent to the linguistic exchange, be it written or oral. In spontaneous speech or in written material, forms that belong to different levels of language, coexist and linguistic variants are used in different ways, depending on the symbolic usage values ascribed to them. Hybridity tends to be more apparent in poorly written material, which reflects not only the written standards to which the less-educated writer loosely adheres, but also the oral elements that infiltrate the text. Less-skilled writers may realize that there is a model to be followed, but may be unaware of some of the rules. They may try to give their prose a written polish, using remembered openings or closings: *Je vous écris pour faire assavoir de mes nouvelles qui sont bonnes Dieu merci!* 'I am writing to acquaint you with my news, which is good, thank God!'

Formulen erabilerak berak islatzen du kontzientzia hori: oro har, *zein* erlatiboan literatur testuak ez bestelako genero batzuetara hedatzea euskal erregistro idatzia sortzeko ahaleginaren adibidetzat jo daiteke. Are garrantzitsuagoa dena: *zein* erlatiboetan badirudi prozesu hori *naturalki* gertatu dela, hiztun arrunt xamarren artean, eta ez hizkuntza inprimatuaren bidez. Hori erakusten du, hain zuzen, euskaraz inprimatutako lan kanonikoetan erlatibozko egitura ez-estandarrik ez agertzeak.

## 7. Ondorioak

Euskarazko *zein* ereduko perpaus erlatiboak erromantzetiko mailegu interesgabetzat jo dira tradizioz. Lan honetan, aldiz, argiro erakutsi dugu azaleko baieztapen eta azterketetatik harago badagoela zeresanik egitura horretaz: hizkuntza idatziaren esparruko bi generotara hedatu zen, dirudienez hiztun, idazle eta idazlari ez hain ikasiek egindako imitazioen bidez; proposamen hori ezin interesgarriagoa begitantzen zaigu (a) euskararen bilakabide diakronikoetan beste hizkuntza batzuen historia azaltzeko hain txertatuta dagoen ikuspegi soziohistorikoa txertatzeko eta (b) hizkuntza-aldaketa bera eta aldaketaren difusio-mekanismoak hobeto ulertzeko.

Landutako gaietatik bereziki interesgarri begitantzen zaigu aztertzea nola jokatu zuten egoera diglosikoan eta euskara estandarizatu eta arauturik gabeko garaietan bizi ziren idazle eta idazlariak; alde batetik, hizkuntza erromantzeetako egituren imitazioaren ildotik; beste alde batetik, euskaraz zeuden edo ezagutzen zituzten beste testu batzuk eredutzat hartu eta imitatuz. Ildo horretatik, *zein* ereduko egitura erlatiboak, literatur testuetan arrunt direnak, hizkera administratibora eta gutuneria pribatuetara igaro ziren. Azken horiek direla eta, aipatzekoa da gutunetako formulen eragina: gutunetan ohiko diren esapide eta gaiak finkatzen dituzte formulek, eta hainbatetan beste hizkuntza batzuetan idatzitako arabera eman ziren euskaraz. Hori da, gure ustez, euskarazko egitura ez-estandarren sorrera eta ugaritasuna azaltzeko beste gakoetako bat; izan ere, formula horietako askok dituzte *zein* ereduko erlatiboak. Gure proposamenaren arabera, imitazioaren edo kalkoaren bidezko transferentziaren eta horien berranalisiaren ondoren sortu bide ziren landutako egitura ez-estandarrik. Neurri batean, hizkuntza erromantzeen ezagutza mugatuak eragin zezakeen berranalisia, hitzunek ez zutelako ondo ulertzen erlatiboaren sintaxia. Erlatibizazio-estrategia berria emankor bihurtu bide zen gerora, eta beste esku batzuetara ere hedatu zen, leku ezberdinetako XVIII.-XIX. mendeetako lekukotasunek erakusten dutenez.

**Eranskina: corpora.**

| Testua/bilduma  | Urtea  | Testu mota* | Iturria                           |
|---|--------|-------------|-----------------------------------|
| B. Etxauzen gutuna  | 1584   | G_PR        | Mitxelena, 1990                   |
| Simancasco gutuneria (7., 10., 11., 12., 16., 17., 19. gutunak)   | 1598   | G_PR        | Orpustan, 2010                    |
| G. Etxarten gutuneria (1616/05/26, 1616/06/13, 1616/07/21, 1616/08/01, 1616/12/07, 1616/12/19)                            | 1616   | G_ADM       | Bilbao <i>et al.</i> , prestatzen |
| M. Rosen gutuneria (1616/07/18, 1616/07/26, 1616/08/19, 1616/12/31)   | 1616   | G_ADM       | Bilbao <i>et al.</i> , prestatzen |
| J. Peruskiren gutuneria (3. gutuna)   | 1664   | G_PR        | Sarasola, 1990                    |
| Berako olagizonaren gutuneria (2. gutuna)   | 1676   | G_PR        | Reguero, 2019                     |
| Urruñatik Hondarribira igorritako gutunak (1., 3. eta 4. gutunak)   | 1680   | G_ADM       | Trebiño, 2001                     |
| M. Elizalderen gutuna (2. gutuna)   | 1699   | G_PR        | Reguero, 2019                     |
| Irungo Udalaren euskal testuak (1. testu)   | 1721   | A_ADM       | Altuna eta Miranda, 1995          |
| Azpeitiko gutunak (1., 2., 3. gutuna)   | 1740   | G_PR        | Madariaga <i>et al.</i> , 2009    |
| Planthion notarioaren agiriak (PL02, PL06, PL07)  | XVIII. | A_NOT       | Elosegi, 2018                     |
| Dardanbourre notarioaren agiriak (MH08, MH45, MH47, MH52)   | XVIII. | A_NOT       | Elosegi, 2018                     |
| Harismendy notarioaren agiriak (MH05, MH17, MH18, MH26, MH43, MH44)   | XVIII. | A_NOT       | Elosegi, 2018                     |
| B. Arbururen gutuna (DL02)  | 1751   | G_PR        | Elosegi, 2018                     |
| Eibarko udal-ordenantzak  | 1754   | A_ADM       | Zuloaga, 2018                     |
| <i>Le Dauphin</i> gutuneria (5, 8, 9, 11, 12, 15, 19, 20, 22, 24, 27, 28, 29, 33, 35, 38, 40, 41, 43, 44, 45, 46, 47, 49) | 1757   | G_PR        | Lamikiz <i>et al.</i> , 2015      |
| Sara eta Baztan arteko gutuneria fazeria-gaiez (1776ko gutuna, 1781eko gutuna, 3. gutuna)                                 | 1773   | G_ADM       | Trebiño, 2001                     |
| Gaztelako Kontseiluaren probisioa   | 1783   | A_ADM       | Trebiño, 2001                     |
| Berako idazkariaren jakinarazpena   | 1786   | G_ADM       | Trebiño, 2001                     |
| Donibane-Lohizune eta Bera arteko gutuneria lapurreta batez (1. gutuna)   | 1788   | G_ADM       | Trebiño, 2001                     |
| Frantziako dekretua herrietako kargudunetz (2. bertsioa)  | 1789   | A_ADM       | Trebiño, 2001                     |

\* G\_PR: gutun pribatua, G\_ADM: gutun administratiboa, A\_ADM: agiri administratiboa, A\_NOT: agiri notariala.

|   |      |       |               |
|---|------|-------|---------------|
| Ahetezko udal-aktak (8. akta)                                     | 1792 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Urruña eta Pasaia arteko gutuna lapurreta batez                   | 1815 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Larraiako gutuna  | 1817 | G_ADM | Camino, 2012  |
| <i>Españaco uritar constitucionalen cartilla civilia</i>          | 1820 | A_ADM | Gómez, 2000   |
| Sarako errolda  | 1821 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Oiartzungo udal-ebazpena  | 1822 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Sara eta Baztan arteko gutuna fazeria-gaiez (II) (1781eko gutuna) | 1824 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Sara eta Bera arteko gutuneria fazeria-gaiez (2. gutuna)          | 1827 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Sara eta Etxalar arteko gutuneria (1, 2, 4, 5)                    | 1827 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Sara eta Etxalar arteko gutuneria (II)                            | 1828 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Zugarramurdi eta Sara arteko gutuneria fazeria-gaiez (1. gutuna)  | 1829 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Sara eta Etxalar arteko gutuneria (III)                           | 1838 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Bergarako hitzarmena  | 1839 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Urruñako gutuneria (1., 2., 3. gutunak)                           | 1844 | G_PR  | Trebiño, 2001 |
| Berako gutuneria azienda-gaiez (2. gutuna)                        | 1846 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Sara eta Etxalar arteko gutuneria fazeria-gaiez                   | 1846 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Etxalar eta Sara arteko gutuneria fazeria-gaiez                   | 1852 | G_ADM | Trebiño, 2001 |
| Lasarteko harategiaren errematea                                  | 1861 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Hernaniko hiltegiaren errematea                                   | 1861 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Lasarteko ardoaren eta pattarraren errematea                      | 1861 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Hernaniko errematea zuhaitz mozteaz                               | 1861 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Hernaniko errematea ardoaren sisaz (1. bertsioa, 2. bertsioa)     | 1862 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Hernaniko errematea pattarraz                                     | 1864 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Tolosako udal-ordenantzak (1. testua, 2. testua)                  | 1875 | A_ADM | Trebiño, 2001 |
| Juan Echeverriren gutuna  | 1896 | G_PR  | Trebiño, 2001 |

## Erreferentziak

- Altuna, F. eta Miranda, P. (1995): «Irungo Udaleko zazpi agiri euskaraz (1721)», *ASJU*, 29(2-3), 527-544.
- Auer, A.; Peersman, C.; Pickl, S.; Rutten, G. eta Vosters, R. (2015): «Historical sociolinguistics: the field and its future», *Journal of Historical Sociolinguistics*, 1(1), 1-12.
- Auger, J. (1995): «On the history of relative clauses in French and some of its dialects», in H. Andersen (arg.), *Historical Linguistics, 1993: Selected Papers from the 11th International Conference on Historical Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia, 19-32.
- Azkue, R.M. (1891): *Euskal izkindea. Gramática euskara*, Astui, Bilbo.
- , (1969 [1923-1925]): *Morfología Vasca*, Editorial Vasca, Bilbo.
- , (1969 [1905-1904]): *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Beaufort, A. eta Iñesta, A. (2014): «Author profiles: Awareness, competence, and skills», in E.-M. Jakobs eta D. Perrin (arg.), *Handbook of Writing and Text Production*, Mouton De Gruyter, Berlin, 141-158.
- Bergs, A. (2005): «The role of the individual in language change from the point of view of Social Network Analysis», *Logos and Language*, 6, 30-54.
- , (2012): «The Uniformitarian Principle and the risk of anachronisms in language and social history», in J.M. Hernández-Campoy eta J.C. Conde Silvestre (arg.), *The Handbook of Historical Sociolinguistics*, Blackwell, Oxford, 83-101.
- Biber, D. (1988): *Variation across speech and writing*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Bilbao, G.; Gómez, R.; Lakarra, J.A.; Manterola, J.; Mounole, C. eta Urgell, B. (prestatzen): *Gabriel Echart zuberotarraren eta Miguel Ros erronkariarraren arteko gutuneria (1615-1617)*.
- Branca-Rosoff, S. (1990): «Conventions d'écriture dans la correspondance des soldats», *Mots*, 24(1), 21-36.
- Bruneton-Governatori, A. eta Moreux, B. (2015): «Un modèle épistolaire populaire : Les lettres d'émigrés béarnais», in D. Fabre (arg.), *Par écrit : Ethnologie des écritures quotidiennes*, Éditions de la Maison des sciences de l'homme, Paris, 79-103.
- Camino, I. (2012): «Bi testu llabur Aezkoa eta Zuberoako. Garralda (1828) & Lorraine (1817)», *FLV*, 114, 61-72.
- Carter, K.E. (2011): *Creating Catholics: catechism and primary education in early modern France*, University of Notre Dame Press, Notre Dame.
- Chartier, R. (1997): «Du livre au lire», *Réseaux. Communication - Technologie - Société*, 1, 271-290.
- Chartier, R.; Julia, D. eta Compère, M.-M. (1976): *L'éducation en France du XVIe au XVIIIe siècle*, Société d'Éducation d'Enseignement Supérieur, Paris.
- Conde Silvestre, J.C. (2007): *Sociolingüística histórica*, Gredos, Madril.
- Dávila, P.; Eizagirre, A. eta Fernandez, I. (1994): «Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria», *Cuadernos de Sección. Educación*, 7, 63-99.
- de Rijk, R.P.G. (1972): *Studies in Basque syntax: relative clauses*, Massachusetts Institute of Technology, Cambridge, Massachusetts.
- , (1980): «Erlatiboak idazle zaharrengan», *Euskera*, 25(2), 525-536.
- Dossena, M. eta Del Lungo Camiciotti, G. (arg.) (2012): *Letter Writing in Late Modern Europe*, John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia.
- Echenique, M.T. (2013): «La lengua vasca en la historia lingüística hispánica», in R. Cano (arg.), *Historia de La Lengua Española*, Ariel, Madril, 59-82.
- Elosegi, X. (2018): *Senpereko eta Lapurdiko euskara XVIII mendean*, Lapurdi 1609 elkarte, Senpere.

- , (2019): *Le Dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak*, «*othoi çato etchera*», Euskaltzaindia, Bilbo.
- Elsaß, S. (2005): *Sprachgeschichte von unten: Untersuchungen zum geschriebenen Alltagsdeutsch im 19. Jahrhundert*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- , (2012): «The use of private letters and diaries in sociolinguistic investigation», in J.M. Hernández-Campoy eta J.C. Conde Silvestre (arg.), *The Handbook of Historical Sociolinguistics*, Blackwell, Oxford, 156-169.
- Elsaß, S.; Langer, N.; Scharloth, J. eta Vandenbussche, W. (2007): *Germanic Language Histories «from Below» (1700-2000)*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- Euskaltzaindia (1999): *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-V*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fleischer, J. (2004): «A typology of relative clauses in German dialects», in B. Kortmann (arg.), *Dialectology Meets Typology: Dialect Grammar from a Cross-Linguistic Perspective*, Mouton de Gruyter, Berlin, 211-243.
- Gimeno Menéndez, F. (1983): «Hacia una sociolingüística histórica», *Estudios de Lingüística Universidad de Alicante*, 1, 181-226.
- Gómez, R. (2000): *Españiaco uritar konstituzionalen cartilla civila*, <<https://klasikoak.armiarma.eus/testuak/testuak19007.htm>> (Kontsulta: 2020-03-011).
- Grosperin, B. (1984): *Les petites écoles sous l'Ancien Régime*, Ouest France, Rennes.
- Guiraud, P. (1966): «Le système du relatif en français populaire», *Langages*, 3, 40-48.
- Haase, M. (1992): *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*, Helmut Buske, Hamburg.
- Koch, P. eta Oesterreicher, W. (1985): «Sprache der Nähe – Sprache der Distanz. Mündlichkeit und Schriftlichkeit im Spannungsfeld von Sprachtheorie und Sprachgeschichte», *Romanistisches Jahrbuch*, 36, 15-43.
- Krajewska, D. (2017): *Euskararen sintaxi diakronikorantz: egitura konplexuak / Towards a historical syntax of Basque: complex constructions*, doktore-tesia, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- , (2018): «'Zein' erlatiboaren historiaz», *ASJU*, 52(1-2), 411-435.
- , (prentsan): «Euskarazko erlatibo aposatuen azterketa diakronikoa», *Fontes Linguae Vasconum*, 129, 117-140.
- Labov, W. (1994): *Principles of linguistic change. Volume 1: Internal factors*, Blackwell Scientific Publications, Oxford.
- Lafitte, P. (1991 [1944]): *Grammaire basque : navarro-labourdin littéraire*, Elkar, Donostia.
- Lafon, R. (1999 [1966]): «La particule *baït* en basque: ses emplois morphologiques et syntactiques», in J. Haritschelhar eta P. Charriton (arg.), *Vasconiana*, Euskaltzaindia, Bilbo, 667-693.
- Lakarra, J.A. (1997): Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU*, 31(2), 447-535.
- Lamikiz, X.; Padilla-Moyano, M. eta Videgain, C. (2015): Othoi çato etchera. *Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757) – Correspondance basque du corsaire Le Dauphin (1757)*, *Lapurdum*, 2 (zenbaki berezia).
- Lillis, T. (2013): *The sociolinguistics of writing*, Edinburgh University Press, Edinburgh.
- Madariaga, J. (2014): *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Madariaga, J.; Azpiazu, J.A. eta Elortza, G. (2009): «XVIII. eta XIX. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk», *FLV*, 41, 5-46.
- Martineau, F. (2007): «Variation in Canadian French usage from the 18th to the 19th century», *Multilingua*, 26(2-3), 203-227.
- , (2013): «Written documents: What they tell us about linguistic usage», in M. van der Wal eta G. Rutten (arg.), *Touching the Past: Studies in the Historical Sociolinguistics of Ego-Documents*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 129-148.



- Milroy, J. (1992): *Linguistic variation and change: on the historical sociolinguistics of English*, Blackwell, Oxford.
- Mitxelena, K. (2011 [1964]): *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril. Berrarg. in J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas, XII*, 1-197.
- Monteano, P. (2017): *El iceberg navarro: euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*, Pamiela, Arre.
- , (2019): *La lengua invisible: el euskera en la Corte y en la Ribera de Navarra en el siglo XV*, Mintzoa, Iruñea.
- Mounole, C. eta Lakarra, J.A. (2018): «Euskara Arkaikoa», in J. Gorrochategui, I. Igartua eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Eusko Jaurilaritza, Vitoria-Gasteiz, 345-468.
- Orpustan, J.-B. (2010): «Correspondance basque à la fin du XVIe siècle (1595-1598) : 20 lettres de renseignements sur la politique de Henri IV et la fin des guerres contre la Ligue», *Lapurdum*, 14, 137-162.
- Oyharçabal, B. (1987): *Etude descriptive de constructions complexes en basque, propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, doktore-tesia, Université de Paris VII, Paris.
- , (1999): «Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen ildotik, iraultzaren frantses garaiko eskola liburuxka bat», *Lapurdum*, 4, 81-105.
- , (2003): «Relatives», in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin, 762-821.
- Padilla-Moyano, M. (2015): «Le Dauphin itsasontziko gutuneria (1757) edo euskararen historia behetik», *Lapurdum*, 2 (zenbaki berezia), 45-77.
- Reguero Ugarte, U. (2019): *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskarazko testu zaharretan barrena (1416-1750)*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Rissanen, M. (1999): «Syntax», in R.M. Hogg eta R. Lass (arg.), *The Cambridge History of the English Language*, Cambridge University Press, Cambridge, 3. liburukia, 187-331.
- Romaine, S. (1982): *Socio-historical linguistics*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Rutten, G. eta van der Wal, M. (2012): «Functions of epistolary formulae in Dutch letters from the seventeenth and eighteenth centuries», *Journal of Historical Pragmatics*, 13(2), 173-201.
- , (2014): «Social and constructional diffusion: Relative clauses in seventeenth-and eighteenth-century Dutch», in R. Boogaart, T. Coleman eta G. Rutten (arg.), *Extending the Scope of Construction Grammar*, Walter de Gruyter, Berlin, 181-205.
- Sarasola, I. (1983): «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU*, 17, 69-212.
- Soubeyroux, J. (1985): «Niveles de alfabetización en la España del siglo XVIII. Primeros resultados de una encuesta en curso», *Revista de historia moderna*, 5, 159-172.
- Tieken-Boon van Ostade, I. (1987): *The auxiliary do in the eighteenth-century English: a sociohistorical-linguistic approach*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- Trask, R.L. (1998): «The typological position of Basque: then and now», *Language Sciences*, 20, 313-24.
- Trebiño, I. (2001): *Administrazio zibileko testu historikoak*, IVAP, Vitoria-Gasteiz.
- van der Wal, M. eta Rutten, G. (arg.) (2013a): *Touching the past: studies in the historical sociolinguistics of ego-documents*, John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia.
- van der Wal, M. eta Rutten, G. (2013b): «Ego-documents in a historical-sociolinguistic perspective», in M. van der Wal eta G. Rutten (arg.), *Touching the Past: Studies in the Historical Sociolinguistics of Ego-Documents*, John Benjamins, Amsterdam/ Philadelphia, 1-17.



- van der Wal, M. eta Rutten, G. (2013c): «The practice of letter writing: Skills, models, and Early Modern Dutch manuals», *Language & History*, 56(1), 18-32.
- , (2016): «At the crossroads. Orality and literacy in Early and Late Modern Dutch private letters», in A.-C. Edlund, T.G. Ashplant eta A. Kuismin (arg.), *Reading and Writing from below: Exploring the Margins of Modernity*, Umeå University, Umeå, 197-214.
- Vicari, S. (2018): «Rituels épistolaires dans les lettres des poilus peu et moins lettrés : une analyse contrastive», *SHS Web of Conferences*, 46, 06009.
- Weinreich, U.; Labov, W. eta Herzog, M. (1968): «Empirical foundations for a theory of language change», in W.P. Lehmann eta Y. Malkiel (arg.), *Directions for Historical Linguistics*, University of Texas Press, Austin, 95-195.
- Wray, A. (2005): *Formulaic language and the lexicon*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Zalbide, M.; Joly, L. eta Gardner, N. (2015): *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Zuloaga, E. (2018): «Eibarko testu zaharrak berrikusten: 1754ko udal-ordenantzak», *ASJU*, 52(1/2), 909-932.
- , (2020): *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*, doktore-tesia, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Zuloaga, E. eta Krajewska, D. (prentsan): «Authors and languages in sociohistorical context: Basque religious literature in seventeenth-century France», *Journal of Historical Sociolinguistics*.

